

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

990

EBAZPENA, 2017ko abenduaren 29koa, Ingurumeneko sailburuordearena, zeinaren bidez urriaren 27ko 202/2015 Dekretuan 2017ko ekitaldirako aurreikusitako diru-laguntzen deialdia ebazten den. Dekretuak ingurumena babesteko inbertsioak egiteko diru-laguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen ditu.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2017ko irailaren 12ko Agindua-ren bitartez, urriaren 27ko 202/2015 Dekretuan aurreikusitako diru-laguntzen deialdia egin zen 2017ko ekitaldirako. Dekretuak ingurumena babesteko inbertsioak egiteko diru-laguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen ditu.

2017ko urriaren 19an amaitu zen eskaerak aurkezteko epea, eta Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzan 83 eskaera jaso dira guztira (47 prozedura arrunterako eta 36 eskaera prozesu errazturako), urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 4. artikuluan eta 2017ko irailaren 12ko Agindua-ren 2. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 16. artikulua arabera, berariaz osatutako Balorazio Epaimahaiak dagokion ebazpen-proposamena egin du, aurrekontuaren mugekin bat etorritik. Proposamenean zehaztuta daude diru-laguntza eskuratu dezaketen egitasmoak, aipaturiko dekretua betez, bai eta diru-laguntzaren zenbatekoa eta ezetsitako eskaerak eta ezesteko arrazoiak ere.

Ingurumeneko sailburuordeak du eskumena eman beharreko diru-laguntzen onuradunak eta zenbatekoak behin betiko zehazteko, aipatutako urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 16. artikulua arabera.

Hauek aztertu dira: urriaren 27ko 202/2015 Dekretua, Enpresei ingurumena babestera bideratutako inbertsioak egiteko diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen dituen; Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2017ko irailaren 12ko Agindua, zeinaren bidez 2017ko ekitaldirako urriaren 27ko 202/2015 Dekretuan aurreikusitako diru-laguntzen deialdia egiten den; apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena, eta oro har aplikatzeko den gainerako araudia, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honetako I. eta III. eranskinetan jasotako enpresei diru-laguntzak ematea, bertan jasotzen diren proiektuetarako eta bertan adierazitako zenbatekoetan.

Aipatutako diru-laguntzak eskatutako inbertsioan diruz lagundu daitezkeen gastu garbien ehuneko zehatz bat dira.

Bigarrena.– Ebazpen honetako II. eta IV. eranskinetan adierazitako enpresei eskatu dituzten diru-laguntzak ezestea, bertan zehazten diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Ebazpen honen V. eranskinean, ezetsitako diru-laguntza eskaeren zerrenda argitaratzea.

2018ko otsailaren 23a, ostirala

Laugarrena.– Diru-laguntza jaso ahal izateko, onuradunak diruz lagundutako inbertsioa gauzatu duela eta inbertsioaren kostua egiaztatu beharko ditu, agirien bidez.

Bosgarrena.– Onuradunek urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 20. artikuluan onuradunentzat ezartzen diren gainerako betebeharrak ere bete beharko dituzte.

Seigarrena.– Eskualde Garapenerako Europako Funtsak kofinantzatzen ditu diru-laguntzok, EAEko 2014-2020ko Programa Eragilearen barruan.,EGEFek lagundutako kopuruaren % 50 ematen du diru-laguntzaren onuraduna enpresa txikia edo ertaina izanez gero. Hortaz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 Araudiak xedatutakoaren eraginpean daude diru-laguntzok, eta baita EGEFen kofinantzazioaren eraginpean (irailaren 12ko Arauaren I. eranskina). Onuradunak Estatuko eta Europako Erkidegoko legedia bete beharko du kontrol, erantzukizun, erregimen zigortzaile eta ez-betetze kontuetan, eta halaber, urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 20. artikuluan ezarritako gainerako betebeharrak, non ingurumena babes-teko inbertsioak egiteko enpresei emandako diru-laguntzak arautzen baitira.

Burutuko diren diruz lagundutako jarduketa guztien informazio eta komunikazio neurri guztietan, aipatu egin beharko da EGEFen bidezko Europar Batasunaren kofinantzazioa, irailaren 12ko Arauaren II. eranskinari jarraikiz.

Zazpigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, diru-laguntzak emateko prozedura orotan egon behar duen publikotasun-printzipioa betetzeko.

Zortzigarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen; horrenbestez, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaiokete Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denetik hasita, horrela baitago xedatuta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean (urriaren 1eko 39/2015) 121. eta 122. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 29a.

Ingurumeneko sailburuordea,
MARIA ELENA MORENO ZALDIBAR.

2018ko otsailaren 23a, ostirala

I. ERANSKINA

PROZEDURA ARRUNTAREN BARRUAN DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUAK

Espediente-zk.	Titular eskatzailea	ETEak	Proiektua	Inbertsio garbia	Diru-laguntzaren zenbatekoa
001-PROT-2017	Residuos de Aluminio SL	Handia	Amoniaikoaren isuri lauso gutxiago sortzeko inbertsioa.	368.214,00 euro	54.207,19 euro
002-PROT-2017	Gigabar Iwago Ibérica SLU	Txikia	Pintura-kabinetako ekipoaq/tresneria garbitzeko hondakin-uren tratamendurako lurrunigailua eskuratzea.	160.480,41 euro	42.896,07 euro
003-PROT-2017	Maquinas Neumáticas Rotativas XXI SLU	Txikia	Lehengai biodegradagarrien bidez piezak garbitzeko makina ezartzea (Teknologia Garbien Euskal Zerrendan jasota dago).	8.558,60 euro	3.431,57 euro
004-PROT-2017	Ampo koop. elk.	Handia	Harea-lanen guneko iragazki bakar berri bat kanpora isuritako partikula solidoak eta zarata gutxiagotzeko.	190.000,00 euro	29.394,22 euro
006-PROT-2017	Hexion Specialty Chemicals Iberica SA	Handia	Prozesu azidoen urak leheneratzea.	29.700,00 euro	3.653,83 euro
007-PROT-2017	Egikor SA	Ertaina	Bibrazio-instalazioetako hondakin-ura tratatzea lurrunze atmosferiko bidez.	22.825,00 euro	3.749,69 euro
008-PROT-2017	Tubacex Tubos Inoxidables SAU	Handia	Txatarra-hondakinak murriztea, osagaien bizitza baliagarria luzatuz: II. Fasea.	165.300,00 euro	20.335,98 euro
009-PROT-2017	Talleres Mendi SL	Txikia	Ebaketa-likidoa eta txirbiak birziklitzeko sistema berri batean inbertitzea ingurumena babesteko.	245.444,35 euro	43.703,24 euro
010-PROT-2017	Viuda de Cándido Gastelurrutia SA	Txikia	IBD by-passeko iragazte-sistema.	104.073,00 euro	22.750,66 euro
013-PROT-2017	Forjas Iraeta Heavy Industry SL	Handia	Gutxieneko kantitateekin lubrifikatze sistema (MQL).	109.588,00 euro	12.547,19 euro
014-PROT-2017	Ugarteburu SA	Ertaina	Piezak ura kontsumitu gabe garbitu eta ikuztea Dürr EcoCCore teknologiaren bidez, eta hondakin gisa olio erabili berrerrabilgarria sortzea.	192.750,00 euro	33.280,07 euro
021-PROT-2017	Nemak Spain SL	Handia	Galdeketa zepetan burdin materiala berreskuratzea bereizketa magnetikoaren bidez.	162.000,00 euro	18.856,13 euro
023-PROT-2017	Nemak Spain SL	Handia	Karga organiko handia duten industria-urak tratatzea.	208.841,00 euro	25.442,08 euro
024-PROT-2017	Furesa koop. elk.	Ertaina	Euri-urak arazteko sistema.	69.500,00 euro	10.123,30 euro
026-PROT-2017	Castinox SA	Ertaina	Neutralizazioa eta hutseko lurrunigailua ezartzea hondakin arriskutsu likidoak <i>in situ</i> tratatzeko (desugerketa eta likido sarkorrak).	58.656,00 euro	10.904,34 euro
027-PROT-2017	Lana koop. elk.	Ertaina	Zur-hondakinak bildu, bideratu eta aprobetxatzeko fabrika-sistemetan inbertitzea, ondoren kalitate handiko pellet gisa balioztatzearen.	38.735,56 euro	6.990,60 euro
030-PROT-2017	Belako Lanak SLU	Txikia	Euri-uren aprobetxamendua.	24.637,56 euro	5.969,76 euro
031-PROT-2017	Tratamientos Térmicos TTT SA	Ertaina	Iraoketa-labeen olio-keen isuriak xurgatu eta iragazteko sistema ezartzea 17.fokua deuseztatzeko.	30.020,00 euro	4.988,31 euro
032-PROT-2017	Fagor Ederlan koop. elk.	Handia	Aluminiozko txirbilan zentrifugagailua Bergarako behe-presioko instalazioan.	106.545,00 euro	12.988,99 euro
034-PROT-2017	Fagor Ederlan koop. elk.	Handia	Fagor Ederlan enpresaren mekanizazio-instalazioan xurgapenak ordeztzea isuriak gutxiagotzeko.	465.000,00 euro	61.941,07 euro

2018ko otsailaren 23a, ostirala

Espediente-zk.	Titular eskatzailea	ETEak	Proiektua	Inbertsio garbia	Diru-laguntzaren zenbatekoa
040-PROT-2017	Wandpi Inversiones y Proyectos SL	Txikia	Outokumpu Copper Tubes SArein industria-kokapen zaharrean aurkitutako material kutsatzaileak hondezteko plana.	74.573,18 euro	16.611,18 euro
041-PROT-2017	Azol-gas SL	Txikia	Piezak garbitu eta ikuztea hidrokarburoak oinarri dituzten alkohol aldatuen ordeaz ura erabiltz.	197.630,00 euro	49.645,34 euro
042-PROT-2017	Bilbaina de Alquitranes SA	Ertaina	Mastikaren ordeaz itxitura mekanikoa ezartzea galipotaren tratamendu termikorako prozesatze-biltegia.	16.240,75 euro	3.092,47 euro
043-PROT-2017	Aldaia 94 SLU	Txikia	Zamudion eta Lezaman (Bizkaia) kokaturiko P.2.8. lurzatian esplorazio-ikerketak eta saneamendua egitea.	609.689,00 euro	117.266,57 euro
045-PROT-2017	Depresa SA	Txikia	Mekanizazioko txirbiak briketatzea.	221.623,00 euro	50.253,70 euro
047-PROT-2017	Metal Smelting SA	Ertaina	Labeetan, ontzialdatze-zalietan eta isurketetan xurgatzeko sistema berri bat ezartzea.	468.897,61 euro	104.444,42 euro
049-PROT-2017	Metraltec SL	Txikia	Hobekuntzak Metraltec SLren araztegia.	145.243,87 euro	36.185,45 euro
050-PROT-2017	Befesa Zinc Aser SAU	Handia	DLWO (Double Leached Waelz Oxide) biltegia isuri lausoak deuseztatzea amaierako bezeroari kamioiak kargatzeko prozesuan.	153.637,00 euro	18.644,17 euro
051-PROT-2017	Befesa Zinc Aser SAU	Handia	Oxidazio termiko birsortzaileko ekipoa ezartzea KOL eta COren isuriak deuseztatzeko.	1.750.000,00 euro	101.355,83 euro
053-PROT-2017	Funeraria Bilbaina SA	Txikia	Isuri atmosferikoak arazteko sistema Galdakaoko errausketa-labeetan.	195.000,00 euro	34.943,21 euro
057-PROT-2017	Engranajes Juaristi SL	Txikia	Artezte-tapakariaren hondakina xurgatzen duen olio bereizteko briketagailua, txikiagotu eta berriz erabiltzeko.	8.660,00 euro	3.103,92 euro
058-PROT-2017	Gorbea Sociedad de Capitales SL	Txikia	Hondeatzea Gabilondo enpresa Gasteizen (Araba) zegoen tokian.	379.165,00 euro	83.690,27 euro
059-PROT-2017	Arteca Caucho Metal SA	Ertaina	KOLak deuseztatze eta energia berreskuratzeko proiektua.	292.000,00 euro	42.325,15 euro
061-PROT-2017	Lanteko Berría SL	Mikroa	Erabiltzen ez diren ibilgailuak berriz manufacturatzeko eta muntatzeko instalazio pilotua (instalazioa martxan jartzeko ekipoa eta makineria).	145.060,00 euro	32.861,08 euro
062-PROT-2017	Arruti Subestaciones SA	Txikia	Deskutsatzea aluminioa leundu eta bizarrak kentzean.	9.415,00 euro	3.261,24 euro
064-PROT-2017	Punteados de Precisión Goi Alde SL	Ertaina	Ebaketa-likidua by-pass eran iragaztea.	101.289,00 euro	12.903,85 euro

2018ko otsailaren 23a, ostirala

II. ERANSKINA
PROZEDURA ARRUNTAREN BARRUAN UKATUTAKO PROIEKTUAK

Espediente-zk.	Titular eskatzailea	ETEak	Proiektua	Arrazoia
005-PROT-2017	Cementos Lemona SA	Handia	Azalera espezifiko handiko kaltzio hidroxidoko injekzio bidez SO2 isuriak eraisteko instalazioa.	Ez da gutxieneko puntuazioa iritsi (2017ko irailaren 12ko Agindua, 12.2 artikulua)
017-PROT-2017	Michelin España Portugal SA	Handia	Usainak txikiagotzeko ekipoa ezartzea.	Ez da gutxieneko puntuazioa iritsi (2017ko irailaren 12ko Agindua, 12.2 artikulua)
022-PROT-2017	Nemak Spain SL	Handia	Galdaketa-dorreko iragazki batean isilgailua ezartzea.	Ez da gutxieneko zenbatekora iritsi (2017ko irailaren 12ko Agindua, 13.2 artikulua)
025-PROT-2017	Zentolen Berri SA	Ertaina	Errausketa-labeko gasak arazteko sistema bat ezartzea.	Ez ditu ekintzen baldintzak betetzen (2017ko irailaren 12ko Agindua, 4. artikulua)
036-PROT-2017	Fagor Ederlan koop. elk.	Handia	Galdaketa-plataformako isuri lausoak gutxiagotzea Uribarriko galdategian.	Ez da gutxieneko puntuazioa iritsi (2017ko irailaren 12ko Agindua, 12.2 artikulua)
046-PROT-2017	Arregi Etxabe Juan Jose SA	Ertaina	Imabe prentsa-paketatzeko makinako inbertsioa.	Ez da gutxieneko puntuazioa iritsi (2017ko irailaren 12ko Agindua, 12.2 artikulua)
054-PROT-2017	Derribos y Contenedores Abanto SL	Txikia	Ahalmen handiagoko makina, ingurumena errespetatzen duena, eskuratzea.	Dokumentazio osatu gabea (202/2015 Dekretua, 10.1.b))
055-PROT-2017	Derribos y Contenedores Abanto SL	Txikia	Ahalmen handiagoko makina, ingurumena errespetatzen duena, eskuratzea II.	Dokumentazio osatu gabea (202/2015 Dekretua, 10.1.b))
056-PROT-2017	Derribos y Contenedores Abanto SL	Txikia	Hondakinak garraiatzeko ibilgailuetan datu-mugikortasuna ezartzea.	Dokumentazio osatu gabea (202/2015 Dekretua, 10.1.b))
060-PROT-2017	Cartonajes Igamo SA	Ertaina	Muxarraduren hartze eta segregazioa hobetzea trokelatzeko eragiketan.	Ez da gutxieneko puntuazioa iritsi (2017ko irailaren 12ko Agindua, 12.2 artikulua)
066-PROT-2017	Fagor Ederlan koop. elk.	Handia	Ebaketa-likidoen iragazte laminarreko sistema Bergarako aluminio-instalazioan.	Ez da gutxieneko puntuazioa iritsi (2017ko irailaren 12ko Agindua, 12.2 artikulua)

2018ko otsailaren 23a, ostirala

III. ERANSKINA
PROZEDURA ERRAZTUAREN BARRUAN DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUAK

Espediente-zk.	Titular eskatzailea	ETEak	Proiektua	Inbertsio garbia	Diru-laguntzaren zenbatekoa
001-PROTS-2017	Ulma Hormigón Polímero koop. elk.	Ertaina	Hormigoi polimerozko fatxada egurastuaren ingurumen-adierazpena.	12.800,00 euro	4.000,00 euro
002-PROTS-2017	Fundiciones Seiak SL	Txikia	Galdategiko hondakinak desmoldeatzeko eta berreskuratzeko sistema eskuratzea.	84.760,00 euro	50.000,00 euro
003-PROTS-2017	Desguaces Jesús María Etxebarria SL	Mikroa	Erabiltzen ez diren ibilgailuen olioak eta likidoak xurgatzeko modulu eskuratzea.	5.404,88 euro	2.972,68 euro
005-PROTS-2017	Smurfit Kappa Nervión SA	Handia	Alkali-edukia txikiagotuz karbonato-lohiak balioztatzea.	196.760,00 euro	50.000,00 euro
007-PROTS-2017	RCD Gardelegui 2005 ABEE	Handia	Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak aurretik hautatzea – tamaina handiko hondakinak eta inpropioak mekanikoki bereiztea.	78.700,00 euro	5.000,00 euro
009-PROTS-2017	Proyectos Onddi SA	Mikroa	Ekodiseinuaren sistematika ezartzea enpresako kudeaketa-sistemaren barrua. ISO 14006 Araua oinarri hartuta.	9.000,00 euro	4.000,00 euro
010-PROTS-2017	Mungia Ugarte SL	Txikia	Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak bahetzeko instalazioa ezartzea.	41.322,00 euro	5.000,00 euro
011-PROTS-2017	Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA	Handia	Soberako lurruna berreskuratzeko azterlana.	5.000,00 euro	2.500,00 euro
012-PROTS-2017	Ingeniería de Sistemas y Telemando SA	Txikia	Ekodiseinua kudeatzeko sistema bat ezartzea ISO 14006:2011 arauaren arabera.	8.000,00 euro	4.000,00 euro
013-PROTS-2017	Montajes Eléctricos San Ignacio SL	Txikia	Ekodiseinua kudeatzeko sistema bat ezartzea ISO 14006:11 arauaren arabera.	8.000,00 euro	4.000,00 euro
014-PROTS-2017	Fagor Ederlan koop. elk.	Handia	Moldekatze-hondarrak siloratzea ondoren hirugarrenek balioztatzeko.	104.444,00 euro	41.777,60 euro
016-PROTS-2017	Sitta, Sillería de Oficina SLL	Txikia	Ekodiseinuari buruzko ISO 14006:2011 araua ezartzea eta egiaztatzea.	4.668,00 euro	2.334,00 euro
017-PROTS-2017	Ampo koop. elk.	Handia	Galdeketa haren berreskurapena handitzeko hozkailu berria.	15.000,00 euro	6.000,00 euro
018-PROTS-2017	A&B Bioteknologiako Laborategiak	Txikia	Garbigarrietarako ECOLABEL ziurtagiria.	8.530,00 euro	4.000,00 euro
019-PROTS-2017	Hierros y Metales Sondika SL	Txikia	VRR24L-R32 aire girotuaren berreskuratzaila eta freno-likidoa xurgatzeko modulu eskuratzea.	2.533,08 euro	1.393,19 euro
022-PROTS-2017	Astigarraga Kit Line SL	Ertaina	Ekodiseinua eskuratzea.	9.980,00 euro	4.000,00 euro
025-PROTS-2017	Lanteko Berria SL	Mikroa	Erabiltzen ez diren ibilgailuak berriz manufakturatzeke eta desmuntatzeko instalazio pilotua.	10.000,00 euro	5.500,00 euro
026-PROTS-2017	Josu Telleria Duñabeitia (Desguace Pilastra)	Mikroa	Erabiltzen ez diren ibilgailuen deskutsatzea (airbagak eta klimatizagailuak) hobetzeko makineria ezartzea eta abian jartzea.	3.178,00 euro	1.747,90 euro

2018ko otsailaren 23a, ostirala

Expediente-zk.	Titular eskatzailea	ETEak	Proiektua	Inbertsio garbia	Diru-laguntzaren zenbatekoa
027-PROTS-2017	Desguaces Arroyabe SL	Mikroa	Erabiltzen ez diren ibilgailuen deskutsatzea (erregaia ateratzea) hobetzeko makineria ezartzea eta abian jartzea.	8.481,46 euro	4.664,80 euro
028-PROTS-2017	Desguace Aztiria SL	Mikroa	Erabiltzen ez diren ibilgailuen deskutsatzea (katalizagailuak eta airbagak atera eta berreskuratzea) hobetzeko makineria ezartzea eta abian jartzea.	6.053,00 euro	3.329,15 euro
029-PROTS-2017	Desguaces Barraka SL	Mikroa	Kudeatzeko CRVNet ERP/CRM softwarea eta merkataritza elektronikoko modulua aplikatzea.	9.900,00 euro	5.445,00 euro
030-PROTS-2017	Desguaces Barraka SL	Mikroa	Erabiltzen ez diren ibilgailuen deskutsatzea (erregaia ateratzea) hobetzeko makineria ezartzea eta abian jartzea.	8.481,46 euro	4.664,80 euro
031-PROTS-2017	Gruas Jon Meabe SL	Mikroa	Erabiltzen ez diren ibilgailuen deskutsatzea (katalizagailuak atera eta berreskuratzea) hobetzeko makineria ezartzea eta abian jartzea.	4.700,00 euro	2.585,00 euro
032-PROTS-2017	Desguaces Mallabia - Ewa Cars Matiena SL	Mikroa	Erabiltzen ez diren ibilgailuen deskutsatzea (erregaia ateratzea) hobetzeko makineria ezartzea eta abian jartzea.	8.481,46 euro	4.664,80 euro
033-PROTS-2017	Ingurumena Advanced Technologies	Txikia	EMAS Gauzen Interneta (IoT) euskal teknologiarekin fabrikatzeko enpresan.	6.000,00 euro	3.000,00 euro
034-PROTS-2017	Ingurumena Advanced Technologies	Txikia	14006 atauaren araberrako ekodiseinua Gauzen Interneteko ekipoen fabrikazioan.	4.000,00 euro	2.000,00 euro
035-PROTS-2017	Talleres y Grúas Bolumburu SL	Mikroa	Erabiltzen ez diren ibilgailuen deskutsatzea (erregaia ateratzea) hobetzeko makineria ezartzea eta abian jartzea.	8.536,61 euro	4.695,14 euro
036-PROTS-2017	Talleres y Grúas Bolumburu SL	Mikroa	Kudeatzeko CRVNet ERP/CRM softwarea eta merkataritza elektronikoko modulua aplikatzea.	9.900,00 euro	5.445,00 euro
037-PROTS-2017	Desguaces Logroño SL	Mikroa	Neurriko web-plataforma garatzea ERP sistema plataforma elektronikoko batera konektatzeko.	10.580,00 euro	5.819,00 euro
038-PROTS-2017	Ingeniería de Sistemas y Telemando SA	Txikia	Karbonoaren aztarna kalkulatzeko.	4.000,00 euro	2.000,00 euro
039-PROTS-2017	Recicar Munguia SL	Mikroa	Erabiltzen ez diren ibilgailuen deskutsatzea (erregaia ateratzea) hobetzeko makineria ezartzea eta abian jartzea.	8.581,46 euro	4.719,80 euro
042-PROTS-2017	Lanteko Berria SL	Mikroa	Erabiltzen ez diren ibilgailuak berriz manufakturatzeke eta desmuntatzeko instalazio pilotua.	10.615,53 euro	5.000,00 euro
043-PROTS-2017	Bilbox 2012 SL	Mikroa	Bilbox San Adrian etorbideko 45eko lurzorua deklaratzeko azterlan tekniko (BILBOX eraikinaren aldameneko orubea).	10.000,00 euro	5.000,00 euro

2018ko otsailaren 23a, ostirala

IV. ERANSKINA
 PROZEDURA ERRAZTUAREN BARRUAN UKATUTAKO PROIEKTUAK

Espediente-zk.	Titular eskatzailea	ETEak	Proiektua	Arrazoia
004-PROTS-2017	Legarra Etxebeste Fundazioa	Txikia	Hasierako IKE entsegu-txostena foku kanalizatueta isuri atmosferikoan maila zehazteko.	Xedetik kanpo (2017ko irailaren 12ko Agindua, 1. artikulua)
023-PROTS-2017	Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SA	Txikia	Eraikuntza eta eraispenerako hondakinen kudeatzailea.	Ez ditu pertsona onuradunen baldintzak betetzen (202/2015 Dekretua, 3. artikulua)

2018ko otsailaren 23a, ostirala

V. ERANSKINA
ATZERA EGINDAKO PROIEKTUAK

Espediente-zk.	Titular eskatzailea	ETeak	Proiektua
021-PROTS-2017	Befesa Zinc Aser SA	Handia	Waelz prozesuaren ondoriozko ferrosita erabiltzea harri-lubetarako hormigoia egiteko.